

222. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Berrikuntza doinuak
musika eskolan**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Mugarri berri bat, ibilbide oparoan	3
Ikasturte berria, egoitza berrian.....	4
Hurrengo urratsa, Perdilegiko eraikina botatzea	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Mugarri berri bat, ibilbide oparoan

Berrogei urtetik gorako ibilbidea du Juan Antxieta musika eskolak. 1982-1983 ikasturtean jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren aitortza ofiziala, eta, ordutik, hainbat eta hainbat azpeitiarrrek izan dute bertan musika tresnaren bat jotzen ikasteko aukera. Gaur egun, hirurehun ikasle inguru ditu.

Azken urteak Perdillegiko eremuko eraikinean egin ostean, egoitza berrian hasi du aurtengo ikasturtea: Soreasuko eraikinean. Izan ere, udalak bota egingo du aurreko egoitza, mendekotasunen bat duten pertsonentzako zentro balioaniztun bat egiteko.

Gaur egun, hirurehun ikasle inguru ditu Juan Antxieta musika eskolak

Musika eskola berriak ia 780 metro karratuko eremua hartzen du, eta ikasle eta irakasleen beharrak kontuan hartuta diseinatu dute. Besteak beste, areto bat ere badauka, ekitaldi txikiak musika eskolan bertan egin ahal izateko.



Ikasturte berria, egoitza berrian

Irailaren 9an hasi zuen ikasturtea Juan Antxieta musika eskolak. Ez da, ordea, ohiko hasiera izan; izan ere, ikasturte berriarekin batera, egoitza berria ere estreinatu du. Perdillegiko eremutik, Soreasuko eraikineko bigarren solairura lekualdatu dute. Musika doinuek lagunduta, irailaren 18an inauguratu zuten.

Udal ordezkariekin batera, Juan Antxietako ikasle eta irakasleak, gurasoak, musika eskolarekin elkarlanean aritu ohi diren eragileetako kideak eta hainbat herritar izan ziren ekitaldian, eta musika eskola barrutik ikusteko aukera izan zuten.

**Juan Antxieta musika
eskolaren egoitza berria
irailaren 18an
inauguratu zuten**

Gaur egun, hirurehun ikasle inguru ditu Juan Antxietak. 2 urtekoak dira txikiak, eta hortik gora, ez dago mugarik, edozein adinetako ikasleak matrikula daitezke. Hogeiren bat musika tresna ikasteko aukera ematen du musika eskolak, eta taldeko jarduerak ere eskaintzen ditu. Era berean, terapia musikaleko saioak ere egiten ditu San Martin egoitzako, Goienetxe fundazioko, Gautenako, Marea Urdineko nahiz Atzegiko kideekin.

780 M²-KO ESPAZIOA

Ezaugarri horiek kontuan hartuta diseinatu du udalak egoitza berria. 780 metro karratu inguruko azalera erabilgarria hartzen du, eta hainbat gelatan dago banatuta: musika mintzairarako hiru gela, zortzi instrumentu gela, talde instrumentalerako hiru gela, bi perkusio gela, erabilera anitzeko gela, biltokiak, komunak eta irakasle, zuzendari eta administrazio langileentzako gelak ditu musika eskolak. Bakoitzak izango duen erabilera kontuan hartuta, tamaina ezberdinak dituzte gelek.

Musika eskola berriak badu berrikuntza bat ere: areto bat dago musika eskolan bertan. Aurreko eraikinean ez zuten halakorik, eta areto horri esker, ekitaldia txikiak, taldeko entseguak eta beste hainbat ekintza musika eskola bertan egiteko aukera izango dutela azpimarratu dute Juan Antxietako kideek, musika tresnak alde batetik bestera mugitzen ibili beharrik gabe.

Sarrera independentea izan dezan, Dinamoaren ondoan eskailera batzuk atera dizkiote Soreasuko eraikinari bigarren solairuraino. Hala ere, irisgarritasuna bermatuta dago, Dinamoaren barruan lehendik zegoen igogailuaren bidez.

**Areto propioari esker,
hainbat ekitaldi musika
eskolan bertan egin
ahal izango dira**



Egoitza berria

EREMU "NATURALA"

Egoitza berria Soreasun kokatzearen garrantzia nabarmendu dute bai udal ordezkariak, bai Juan Antxieta musika eskolakoek. Musika eskolarentzat "eremu naturala" dela adierazi dute. Soreasu antzokia hor bertan egoteaz gain, Soreasuko eraikinean dute egoitza kultur arloko beste hainbat eragilek ere, hala nola udal musika bandak eta Julian Barrenetxea abesbatzak. Gainera, azken urteotan, Dinamoa sormen gunearen bidez, beste bultzada bat ere eman zaio eremuari.

Musika eskolaren ardatzetako bat da herriko beste eragileekin duen elkarlana. Ikasturte guztian zehar, egutegi bete-betea izaten du. Datozen asteotan, esate baterako, Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloan, Triki Giro festan, San Martin egunean edo Santa Zezilia eguneko kontzertuan parte hartuko dute ikasleek.

JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLAK ESKAITZEN DITUEN ESPEZIALITATEAK

- Pianoa
- Akordeoia
- Organoa
- Gitarra klasikoa, elektrikoa eta baxua
- Kantua
- Biolina
- Biolontxelo
- Tronpet
- Tronpa
- Tronboia
- Bonbardino
- Tuba
- Klarineta
- Zeharkako flauta
- Saxofoia
- Perkusioa
- Trikitixa
- Txistua
- Panderoa
- Txalaparta

TALDEKO JARDUERAK

- **Ahots taldeak:** korala; abesbatza.
- **Instrumentu taldeak:** txistua; trikitixa eta panderoa; soka taldea; gitarra; metala; banda; pianoa eta teklatura.
- **Terapia musikala:** San Martin egoitza; Goienetxe fundazioa; Gautena; Marea Urdina; Atzegi.



Hurrengo urratsa, Perdillegiko eraikina botatzea



Perdillegiko eremuan mendekotasuna duten pertsonentzako zentro balioaniztun bat egitea dute adostuta Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Zentro hori egin ahal izateko, pixkanaka-pixkanaka eremua husten ari da udala, eta horrek ekarri du Juan Antxieta musika eskola Perdillegitik Soreasura aldatzeko erabakia ere.

Musika eskolaren egoitza berriaren inaugurazioan, ideia hori nabarmendu zuen Nagore Alkorta alkateak. “Doble pozten gaitu inaugurazio honek, kausa eta ondorioak biak direlako onuragarriak azpeitiarrentzat: lehengo tokian, mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza bat egingo dugu; musika eskola berria, berriz, benetan ederra geratu da”.

Behin musika eskolaren lekualdaketa gauzatuta, hurrengo urratsa Perdillegitik eraikina botatzea izango da. Udalaren aurreikuspenen arabera, urtea amaitu baino lehen jarriko da martxan eraisketaren kontratazioa.

KOKAPEN BERRIAK

Juan Antxieta musika eskola bezala, Perdillegitik eremuan zeuden beste jarduera batzuk ere tokiz aldatu dira mendekotasuna duten pertsonentzako zentroa egin ahal izateko. Iaztik, Perez Arregi plazan dute egoitza Azpeitiko Udal Euskaltegiak eta Atzegiren Txolarte aisialdi taldeak, Telefonicaren eraikin eraberrituan hain zuzen.

Perretxikoa izenez ezagutzen zen eraikina ere iazko urrian bota zuen udalak. Han zegoen Azpeitiko Helduen Eskola, eta gaur egun San Martin egoitzaren atzeko eraikinean ematen ditu eskolak, Iraurgi Ikastetxea egon zen eraikinean. Zentro berria egiten hasi bitartean, aparkaleku gisa egokitu da perretxikoko eremu hori.



Energia Bulegoa

943 11 98 06
energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus